



VI.GAU-TXORI (GAUEKO) ARGAZKI RALLYA Azpeitia 2015ko Otsailak 28



Oinarriak

- 1.- Memoria-tarjetadun **kamera digitala** duen edonork parte hartu dezake.
- 2.- Izen-ematea internet bidez egingo da argazkiakae@hotmail.com helbidean **Otsailaren 26a** baino lehenago. Izen-ematea 7 €-koa izango da eta 20 €-koa afarira apuntatzen denarentzat (inskripzioa+afaria) rallyaren egun berean ordaindu beharko dira Azpeitiko Argazki Elkartearen egoitzan, Perez Arregi 1, 1º (Telefonica eraikina) 19:00tatik 20:00etara.
- 3.- Partaide bakoitzak bere memoria-tarjeta ekarri beharko du, **guztiz hutsik**. **Argazkiak Azpeitian ateratakoak izango dira**, txuri-beltzean edo koloretan egin ahal izango dira, JPG formatuan eta kalitate oberenean.
- 4.- Rallya 02:00etan amaituko da **AZPEITIKO ARGAZKI ELKARTEAN**, tarjetak ordenagailuan deskargatuko direlarik. Gehienez 36 argazki aurkeztu ahal izango dira (kontroleko argazkia barne). **Ezabatu ahal izango direlarik**. Argazkiak ezingo dira manipulatu. Berezkotasuna, sormena eta teknika izando dira kontutan puntuak ematean.
- 5.- **2015ko Martxoaren 8a baino lehen** partehartzaileek gai bakoitzerako argazki bat aukeratu eta argazkiakae@hotmail.com helbidera korreo bat bidali beharko da, **partaide zenbakia** eta gai bakoitzerako hautatzen den **argazkiaren zenbakia** adieraziz.
- 6.- SARIAK:

Bilduma onena..... 150€ eta garaikurra
Bigarren sailkatua..... 100€ eta garaikurra
Hirugarren sailkatua..... 70€ eta garaikurra
Herriko Lehen ez saritua..... garaikurra
- 7.- Saritutako argazkiak elkarte antolatzailearen esku geldituko dira, zeinek egoki iruditzen zaion moduan erabili ahal izango dituen, beti ere, egilearen izena aipatuz.
- 8.- Oinarri hauetan azaltzen ez den edozein arazo suertatuko balitz, elkarte antolatzaileak nola konpondu erabakiko du.

RALLYEN TXAPELKETA

Herriz-Herri txapelketarako puntuagarria izando da.